

ONERAKO ALA TXARRERAKO?

J.M. ITURRIOZ

Ez dira hogeitabost urte igaro lehen kreditu-txartela kaleratu zenetik. Kreditu-txartela diot, oro har, horretarako erabili ohi delako. Baina azken batean nortasun-txartela da. Ziur nago, irakurle, zeuk edo zure inguruko norbaitek baduela aipatutako txartela. Segurua al da zure txartela? Zertan datza txartelaren segurtasuna? Goazen bada gai hau aztertzerara.

Lehenengo txartelek erreliebezko hizkiez, aurrekaldean, grabaturik zeramatzen erabiltzailaren izena, kodea eta balio-mugaren epea.

Geroago txartel hauei xingola magnetikoa erantsi zitzaien, atzekaldean. Horrela txartelen erabilera segurtasun handiaz hornituz. Izkutuzko kodea eta beste zenbait informazio grabaturik bait daramate txartelek xingola magnetikoan. Bai-

na xingola magnetikoa denez gero bertan ia edonork irakur dezake bertako informazioa, hala nola bertako informazioa aldatu, beste zerbait idatziaz jatorrizko informazioaren gainean. Bestalde, xingola honek oso informazio laburra gorde dezake (izkutuzko kode, datu pertsonalak eta ez gehiago).

Beraz, xingola hauen ezaugarri nagusiak dira aldakortasuna eta kapazitate txikia baina hau ez bada ona, are okerrago da ez duela kanpoarekiko inolako defentsarik; hau da edonork maneia dezake xingola magnetikozko txartela (lapurrak etab.) Arazo honi eskaini diezaiokgun soluzioa memoria babesturik duen txartela da.

Memori txartela kanpoko itxura besteena bezalakoxea da, hau da, neurri standardak ditu 85x54x0,76


mm. Baina goialdeko ezker-erpina inguruan mikrozirkuitu elektronikoa du landaturik eta gutxienez zortzi zulo txiki ikus daitezke; zulo txikiak mikrozirkuitua elektrikoki konektatzeko dira eta era berean informazio irteera/sarrera bideak. Mikrozirkuitua da beraz, txartel hauen muina. Bertan gordetzen da izkutuzko kodea, datu pertsonalak eta beste zenbait informazio.

Mikrozirkuitua fisikoki 0,25 mm lodiera eta hamarreko batzu mm² azalerako paralelepipedoa da (ikus

irudia). Hau plastikoz metalizatuzko filma batean ezartzen da ukipen elektrotorako guneen euskarri suertatuz.

Guztia plastikozko bi xalfa artean landatzen da txartel arruntaren forma eta neurriak gordez hau da luzera 85 mm, zabalera 54 mm eta lodiera 0,76 mm.

Lotura elektrikoa lortzeko zortzi orratz dituen blokea erabiltzen da txartelan kanporaturik dauden zortzi ukipen-gune metalezatuak ukituz. (Ikus irudia).



Memori txartelek, gainera, xingola magnetikoa daramate eta erreliebezko hizkiez idatzitako informazioa. Horrela memori txartelek xingola magnetikozkoen funtzioak ere betetzen dituzte.

Memori txartelek informazio gehiago gorde dezaketenez gero aplikazio asko eskaintzen ditu.

- Kutxazain automatikoetan. Izkutuzko kodea jakin ezinezkoa da eta; inor, ez den kodea sartzen saiatzen bada, txartelak eragiketa blokeatu egiten du. Segurtasun handia beraz.
- Banketxe-lehiatila automatikoetan. Diru-ezarpenak (metalikoa edo txekezkoa) kontu-eragiketak etab.
- Dendetan ipintzen ari diren datafonoetan xingola magnetikozkoak baino segurtasun handiago, inola ere *erabiltzarlea* ez den beste inor ez bait du jakiterik izkutuzko kodea.
- Terminal finantzarioetan. Hauek banketxetan edo entrepesetan ko-

katurik egon daitezke. Edozein eragiketa-tipo egin daitezke edo sarrera kontableak automatikoki eguneratu.

- Videotex terminaletan, edozein eragiketa bankarioa etxetik mugitu gabe egiteko aukera ematen duen sistema.
- Datu banku informatikoetarako giltza izan daiteke eta era berean bankuak ematen dizun informazioaren balioa bapatean zure banketxetik deskontatu edota saldoa negatiboa baldin baduzu, agian informaziorik ere eman ez.

Beraz ikusten da memori txartelak zer eskaintzen digun. Batetik orain artekoekiko segurtasun handiagoa, ia arriskurik gabekoa eta bestetik edozein informazioa gordetzeko ahalmena: Banketxeko zure datuak, telefonoa, errenta-deklarazioa, osasun-fitxa, tratamendu kliniko konplikatu eta pertsonala izan daiteken baten kode pertsonala eta era beren fitxa poliziala, **moroso** fama eta abar. ♦

